

hezkuntzako laboralak

Lan-hitzarmena 2003

STEE-EILASek ez du 2003ko lan-hitzarmenaren aurre-akordioa sinatu hezitzaile eta irakasle laboralentzat.

Hitzarmen honen negoziaketa ez ohikoa izan da, hiru bilere-tan gauzatu da. Administrazioak beren proposamenak bertan eman dizkigu edo asko jota bileraren bezperan. Gure ustez negoziatzeko modu hau, hots, korrika eta presaka eta aztertze-ko testurik gabe, Administrazioaren aldekoa da. Honek ongi ezagutzen baititu sindikatuen plataformak alde aurretik eta inplikatuekin komunikazio zuzena eragozten du.

STEE-EILASek egoera hau salatu du negoziatzeko mahaian, bi urterako lan-hitzarmena proposatuz, 2003koa bukatzeaz baitzegoen, eta, gutxienez, aurre-akordioa sinatu baino lehen denbora tarte nahikoa ematea. Ez Administrazioak ez beste sindikatu guztiek ez zuten itzaroteko beharra ikusi, ezta sinadurarako proposatzen zen lan-hitzarmenaren testu idatzia ikusteko ere eta baldintza hauetan LABek, ELAk eta CCOOek aurre-akordio hori sinatu zuten.

Gure ustez negoziaketa prozesuan langileek parte hartu behar dute, dena den badirudi egun ez dagoela modan hori sindikatu gehienentzat, STEE-EILASentzat ezinbesteko baldintza da hitzarmena sinatzeko.

STEE-EILAS justifikagaitza den egoeragatik ez da presionatzen uzten eta erabakiko dugu ea sinatzen dugun ala ez, behin gure herrialdeetako asanbladek erabaki bat hartu ostean. Hurrengo aldizkarian gure erabakiaren berri emango dizuegu eta hitzarmenaren edukiari buruz egiten dugun balorazioa★

Amatasuna ihardunaldi murriztuan

Aurreko ziber batean aipatu bezala, lana eta familia bate-ragarri egiteko neurrien artean 1251/2001 Errege Dekretuak amatasun lizentzia jardun partzialean gozatzeko aukera ematen du.

Baina puntu hau, besteak beste, gure lan-hitzarmenean islatuta ez zegoenez, sartu beharra zegoela ikusi genuen. Aurre-akordioa sinatu da, hori dela eta, puntu hau barne dago, hots, hemendik aurrera erditzearen osteko sei asteen ondoren hurrengo 12ak jardun partzialean har daitezke, honela amatasun lizentzia luzatuko litzateke proportzionalki.

Egin ezazu gehien komeni zaizun aukera★

Zikloak Librez

Pasa den urteetan matrikulatuta egon ez diren pertsonak bai Gizarte Integrazioa bai Haur Hezkuntzako Goi-mailako Heziketa Zikloak librez egiteko aukera izateko Administrazioak agindu bat prestatu behar du.

Aurreko aldizkarietan esaten genizuen haien asmoa abenduan agindu hori ateratzea eta urtarrilean matrikulazio epea zabaltzea zela. Baina hori ez da gertatu. Gauzak atzeratzen doaz eta badirudi luzea izango dela agindua erditzeko prozesua.

Ondo dakigu egoera hau ez dela txantxetako ordezkoen zerrendan dauden pertsona batzuentzat. Dakizue-nez irailerako bete behar izango dituzten baldintzen artean ziklo horietariko batean matrikulatuta egotearena aurkitzen da, eta egiteko aukera ez badago, ezinezkoa izango da hori betetzea.

Hau dela eta, gure aldetik ahalegin guztiak egingo ditugu agindu hori argitaratzeko prozesua bizkortzen saiatzeko★

hezkuntzako

laboralak

Dozenteak

- 1-Ordainketak: 2005ko urtetik aurrera, irakasleek bi ezohizko pagak jasoko dituzte eta ez hiru lehen kobratzen ziren bezala. Hau dela eta, hilero soldata igoko zaie, funtzionario dozentekin parekatze-ko asmoz.
- 2-Absortzio prozesuari buruz adostasun batera iritsi gara. Gehienbat soldata gehiago kobratzen dutenentzat, kontutan izanda bere maila eta kargua. Soldata izoztu egingo zaie, gehiago kobratzen zizutuzten irakasleek, aldea 5000 euro izanik, eta kontrako igoera izango dute (%60 igoerak), 5000 euro baino gutxiago duten aldea.



- 3-Baimena ordainketa partzialarekin: "Urte sabatiko" bat eskatu ahal izango da soldataren %85 kobratuz, lau urtetan zehar. Urte sabatikoan, berdin kobratuko da (%85) hilabetero, eta aipatutako urtea zerbitzu aktiboa aintzakotzat hartuko da.
- 4-Errelebu kontratua: Ezin izan da lortu, administrazioak mahai orokorrari dagokion gaia dela aipatzen du, nahiz eta guk horrela ez ikusi. STEE-EILASEk eskubide hau eskatzen jarraituko dugu, kolektibo osoarentzat lortzeko asmoz★

Prestakuntza

Fondoa

Besteetan gertatu ohi den bezala, urtarrilaren bukaeran egindako ikastaroen diru-laguntza eskariak aurkezteko epea irekiko da. Hori dela eta, 2003 urtean Heziketa Berziarekin zerikusia duen prestakuntza ikastaroren bat egin baduzue, erne egon!, hemendik gutxira informatuko dizuegu epearen datari buruz.

Aurkeztu beharreko agiriak laguntza lortzeko, matricula-orriaz eta NANaz gain honako hauek dira:

- ✓ Ikastaroa ematen duen erakundearen ziurtagiria/faktura. Honetan agertu behar luke: zuen izena, ikastaroaren izena, iraupena eta ordaindutako dirua (beti ere 2003an eginiko ikastaroetarako).
- ✓ Ikastaro hori dela eta, kutzako ordain-agiria.

Agirik originalak izan behar dute, dena den, onartuko dira zigilu originala duten fotokopiak★